



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko azaroaren 21a

143. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Azagrako Haur eta Lehen Hezkuntzako Francisco Arbeloa Ikastetxe Publikoko Lehen Hezkuntzako lehen mailako bi ikasgelak bikoiztu ditzan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroatik kanpora joan behar izan duten gazteen itzultzerako eta laneratzeko pizgarriak emateko plan bat egin dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak ezar ditzan, gure erkidegoan bizi diren Venezuelako erretiratu eta pentsiodunek oinarritzko soldata soziala eta gizarte-laguntzen zerbitzu eta sistema autonomikoak eskuratu ahal izateko, beren herrialdeko pentsiorik ez badute jasotzen. Eskubide Sozialetak Batzordean izapidetzea (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroaren armaria jar dezan Nafarroako Jauregiaren fatxada nagusian, Foruaren Hobekuntzak ezartzen duenaren arabera. Galdera erretiratzea (4. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Azagrako Haur eta Lehen Hezkuntzako Francisco Arbeloa Ikastetxe Publikoko Lehen Hezkuntzako lehen mailako bi ikasgelak bikoiztu ditzan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2017ko azaroaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Azagrako Haur eta Lehen Hezkuntzako Francisco Arbeloa Ikastetxe Publikoko Lehen Hezkuntzako lehen mailako bi ikasgelak bikoiztu ditzan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak Hezkuntza Departamentua premiatzen du berehala bikoiztu ditzan Azagrako Haur eta Lehen Hezkuntzako Francisco Arbeloa Ikastetxe Publikoko Lehen Hezkuntzako lehen mailako bi ikasgelak, horietako bakoitzean 25 ikasle baino gehiago baitaude”.

Iruñean, 2017ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroatik kanpora joan behar izan duten gazteen itzultzerako eta laneratzeko pizgarriak emateko plan bat egin dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko azaroaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroatik kanpora joan behar izan duten gazteen itzultzerako eta laneratzeko pizgarriak emateko plan bat egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, 2017ko azaroaren 23ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

2016ko otsailaren 10ean, Nafarroako Parlamentuak ezetsi egin zuen, batzordean, talde parlamentario sozialistak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen talentua itzularazteko politika bat abian jartzera, eta hobariak sor zituzan, Nafarroan instalatuta dauden enpresek prestakuntza eta titulazioa Nafarroako Foru Komunitatean lortu duten gazteak kontrata ditzaten, beren lurraldea utzi behar izan dutenak eta beren lanbidea Nafarroatik kanpo garatzen ari direnak.

Garai horretan adierazten genuenez, gure herrialdea 2012, 2013 eta 2014an utzi zuten 525.358 emigranteen artean –Estatistikako Institutu Nazionalaren datuen arabera– nafar asko zeuden. Beraz, erabakitasunez lan egin beharko genuke emigrante behartu horiek guztiak itzul daitezen.

Ia bi urte iraganda, eta ustez suspertze joeran bagaude ere, emigrazio hori ez da eten: CERA-Azterrian Bizi diren Espainiarren Hautesle Erroldaren azken datuen arabera, berriki argitaratu baitira, 2.200dik gora gazte joan dira Nafarroatik 2008. urteaz geroztik. Pertsona horiek atzerrian jarduten ari dira beren lanbidean; besteak beste, medikuntza, teknika eta zientzia arloetako profilak dira, eta Nafarroa haien ordezkorik aurkitu ezinik dabil.

Beste erkidego batzuetan, esaterako Gaztela-Mantxan eta Andaluzian, politika horiek burutu dituzte, bakoitzak bere plana eginez, itzularazteko pizgarriak jarrita. Andaluzian emaitza positibo argi eta garbiak lortu dituzte, eta Mantxan puntako programa bat dute –oraindik exekuzio fasean–. Proiektu horiek Europako Gizarte Funtsaren 2014-2020 aldirako egiturazko funtsen bidez finantzatzen ahal dira.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Pizgarriak emateko plan bat egin dezan, Nafarroatik kanpora joan behar izan duten eta azken hogeita lau hilabeteetatik gutxienez seitan hemendik kanpo bizi izan diren gazteen itzultzerako eta laneratzeko, besteak beste neurri hauek sartuta: laguntzak enpresa eta entitateentzat, pertsona horiei kontratu mugagabea egitearen truke; pizgarriak, jardun ekintzaileak Nafarroan garatzearen truke; eta laguntza ekonomikoa, bizilekua aldatzearen kostuari aurre egiteko.

– Gazteriar buruzko 2017-2019 II. Foru Planean behar diren neurri eta jarduketa guztiak sartuz, Nafarroan prestakuntza, gizarte eta lan arloetako baldintzarik onenak ezartzeko, etxetik joatera behartuta suertatzen diren gazteen jario hori geldiarazte aldera.

Iruñean, 2017ko azaroaren 16an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak ezar ditzan, gure erkidegoan bizi diren Venezuelako erretiratu eta pentsiodunek oinarrizko soldata soziala eta gizarte-laguntzen zerbitzu eta sistema autonomikoak eskuratu ahal izateko, beren herrialdeko pentsiorik ez badute jasotzen.

ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko azaroaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetu dadin Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren neurriak ezar ditzan, gure erkidegoan bizi diren Venezuelako erretiratu eta pentsiodunek oinarrizko soldata

soziala eta gizarte-laguntzen zerbitzu eta sistema autonomikoak eskuratu ahal izateko, beren herrialdeko pentsiorik ez badute jasotzen. Galdera 2017ko urriaren 20ko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroaren armarrria jar dezan Nafarroako Jauregiaren fatxada nagusian, Foruaren Hobekuntzak ezartzen duenaren arabera.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko azaroaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko galdera erretiratu duela. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroaren armarrria jar dezan Nafarroako Jauregiaren fatxada nagusian,

Foruaren Hobekuntzak ezartzen duenaren arabera, eta 2016ko urriaren 14ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza